

BIERGIÑA

JAINKOAREN
JARRAITZAILLE
ETA ORDEZKO

Itaunduko bageuntse ia zein dan bierraren iturria, erantzungo leuskigue geienak, nik uste: Bierra, Jainkoak gizonari pekatuagaitik emondako kastigua da. Eta erantzun au baieztuteko Biblia ipiñiko leuskigue testigu. Eta egia da-izan.

Erantzun onen konsekuentziak argi ta garbi ikusi daikeguz beingoan. Jakiña, kastigua ta madarikaziñoa bada, beste erremedio-rik eztaukagulako-edo artu bear dogu bierra, penitentziz, gure pekatuen ordañez. Beste ezergaitik ez. Zelan, ba, ikusi alaitasuna bierrean? Gatx benetan!

Alan da guztiz be, ba-dauko Biblia-n arpegi au bierrak, egia esan. Beste gauza bat da arpegi au baño ezpadauko. Bierraren sasi-iturri au gure lenen-gurasoen pekatu-ostean agertu zan. Asieran, ostera, beste bat zan benetako iturria.

Biblia-k diñosku Jainkoak bier egin eba-la mundua egitean. Eta azkenko egunetan gizona egin ei eban. Eta gero, deskantsetan pare ei zan, kantseta-edo, antza.

Gizona, beraz, Jainkoaren bierra ta atsendaren bien bitartean agertzen da, Jainkoaren bierraren jarraitzaille ta segitzaille lez. Au ondo erakusten iaku Libru Santuetan. San Pablo leidutea besterik ez.

Ikusi be: Jainkoak gizona egin ebanean artu eban deskantsua. Bai, atsedena artzen dau Jainkoak, gizonak Kreaziñoa jarraitu daian, bere izen eta bere menpean, noski.

Gizona, ba "Jainkoaren ordezeko ta jarraitzaille danez da biergiña" eta "biergiña dan ezkerro da Jainkoaren ordezeko eta jarraitzaillea".

Len be beste baten esan nebanez, geure kontura itxi eban Jainkoak mundu au osotutea. Berak asi eban lenengo bierra. Baña

amaitu barik itxi eban, ez-osotua lez. Eta guri gizonari agindu euskun bere ordezeko lez jarrai gengian berak asitako mundua.

Eta ori lortuteko bide bat baño eztago, besterik bapez. Bide bakar ori Bierra da. Len be esan genduan ori. Bierraren bitartez gara, ba, gu Jainkoaren ordezkari ta bere jarraitzailleak.

Ara, ba, nun dagerkigun gure eguneroko bier izerditsuaren iturri bizi ta argia. Jainko berberaren ordezeko eta jarraitzailleak gara! Poztu gaitezen, beraz!

Torrealday.

